



EJko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza

- 1.- Sarrera 
- 2.- Mugiment sustatzaileak 
- 3.- Mugiment Ekintza Plana 
- 4.- Mugiment sareak 
- 5.- Jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuak 
- 6.- Eusfit Mugiment 
- 7.- Koordinazioa 
- 8.- Komunikazioa 
- 9.- Formazioa 
- 10.- Dirulaguntzak 
- 11.- Ikerketa 
- 12.- Zeharkako egitekoak 
- 13.- Adierazleen taula 
- 14.- Laburpena 



1.- Sarrera

Dokumentu honen bidez 2024an landutakoaren ebaluazioa egin nahi dugu. Bereziki, [2022-2024 lan-programan](#) ezarritako helburuen jarraipena eta betetze maila aztertzen da.

Mugiment egitasmoa erakunde ezberdinen lan eta koordinazio ahaleaginean oinarritzen da. Txosten honetan **Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Mugiment egitasmoari egiten dion ekarpena ebaluatuko dugu**, jakinda beste erakunde batzuk ere jarduera fisikoaren sustapenean lan egiten dutela Mugiment egitasmoaren baitan.

2024ko berritasun nagusia Mugiment Ekintza Plana izan da. Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren 2/2023 Legeak zehazten du legealdi bakoitzaren hasieran jarduera fisikoa sustatzeko plan berri bat aurkeztuko dela Legebiltzarrean eztabaidatu dadin. Aurten Plan horren lehen urratsak eman ditugu.

Ebaluazioak 14 atal ditu. Lan programan zehaztu genituenei Mugiment Ekintza Planari buruzkoa gehitu diogu, aurten heldu baitiogu zeregin honi.

Txostena bukatzeko **atal bakoitzari dagokion ondorio nagusi bat azpimarratzen da eta urteko ondorio nabarmenenak aipatzen dira**; positiboak eta negatiboak.

Datuetan oinarrituta egon arren, ebaluazio hau iritzi teknikoa baino ez da, eta horrela ulertu behar da.


Informazio gehiago lortzeko, dauden esteketan klikatzea proposatzen da.



2.- Mugiment sustatzaileak

Mugiment sustatzaileak dira Mugiment egitasmoaren ekimen ezberdinetan parte hartzen ari diren erakundeak eta, orohar, jarduera fisikoaren sustapenean bere aletxoak jarri nahi duten eragile guztiak. Mugiment sustatzaile izateko, bi baldintza bete behar dira:




- 1- Gizarte aktiboa lortzeko lagungarriak izan daitezkeen ekimenak sustatu behar ditu erakundeak. Ekimen hauetako batzuk izan daitezke esaterako, orientazio zerbitzuak eta sareak edota Kiroltxartela Mugiment.
- 2- Mugiment sustatzaile bihurtu nahi dutela guri adierazi.

-  4 erakunde berri gehitu dira egitasmoa eta [124 sustatzaile](#) gara (Eusfit Mugiment ekimeneko ikastetxeak zenbatu gabe).

Hala ere, datu honek badu bere arrazoia. Mugiment Ekintza Planean aurreikusten da sustatzaileen figura hau desagertzea. Etokizunean Planarekin bat egingo duten eragileek jarduera fisikoa sustatzeko proposatuko dituzten konpromisoak jasoko dira. Horregatik, 2024an ez dugu sustatzaileak gehitzeko ahaleginik egin.




3.- Mugiment Ekintza Plana

Legealdi berriarekin Mugiment egitasmoa aro berri batean sartuko da, eta horretarako, Mugiment Ekintza Plana, EAEko bizitza aktibo eta osasungarriaren plan berria, diseinatzen hasi gara.

-  [Mugiment Ekintza Planaren hasierako bertsioa](#) sortu da (0.0 eta 0.1 bertsioak).
-  Planaren garapenerako baliagarriak izango diren hainbat baliabide sortu dira: egutegia, arduren antolaketa, jardunbide onen bilduma, 02/2023 Legeak ezartzen dituen eginbeharrekoen sailkapena, GAPPK proposatzen dituen ekintzen sailkapena, etab.
-  Planaren bizkarrezurra izango diren eragile ezberdinen konpromisoak jasotzeko aplikazio informatikoaren garapena abiatu da, bilatzaile egitura izateko asmoz.

4.- Mugiment sareak






Mugiment sareak arlo arteko lantaldeak dira, helburuetan jarduera fisikoa sustatzea dutenak. Sare hauek tokian-tokikoak dira eta Mugiment partaideak izan behar dituzte eragileen artean.

-  33 [sare daude](#) lankidetzaren jarduera fisikoa sustatzen, iaz baino 3 gehiago.
-  134 bilera egin dira Mugiment sare ezberdinetan.
-  ESI ezberdinetako erizain komunitarioen parte-hartzea gero eta garrantzitsuagoa da. Udalerrietan jarduera fisikoaren sustapenean eragiteko gaitasun handia izan dezakete.








5.- Jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuak

Pertsona inaktiboentzako laguntza zerbitzuak, osasunaren eta kirolaren arloetako lankidetzan oinarrituta.

-  2024an 47 [orientazio zerbitzu](#) aritu dira lanean, iaz baino 8 gehiago. 5 Araban, 22 Bizkaietan eta 20 Gipuzkoan. [Hemen](#) emaitzak.
-  Osakidetzako langileentzako 19 saio egin ditugu EAEko osasun zentro ezberdinetan.
-  [Mugiment Online](#) ekimena sortu genuen: ariketa fisikoa etxean egiteko 6 saioko bideo bilduma.
-  Gipuzkoako osasun mentaleko sareko zentro ezberdinekin bildu gara orientazio zerbitzuak aurkezteko eta pazienteen deribazioak sustatzeko.
-  [Osakidetzarekin elkarlana](#) gero eta estuagoa da. Pazienteak deribatzen dituzten osasun arloak gero eta gehiago dira: lehen arretako medikuntza eta erizaintza, lehen arretako fisioterapia, errehabilitazioa eta osasun mentala.

6.- Eusfit Mugiment






Euskal ume-nerabeen sasoi fisikoaren monitorizazio [sistema](#).

-  [Ekimenaren bigarren edizio honetan](#) partaidetza datuek nabarmen egin dute gora: 57 ikastetxe (+% 68), 111 irakasle (+% 91), 389 talde (+% 80) eta 5.939 ikasle (+% 65).
-  Eusfit Mugiment aplikazioan hobekuntzak txertatu dira.
-  Parte hartu duten irakasleen [balorazioa ona](#) izan da.
-  Hezkuntza Sailarekin koordinazioan izandako arazoak direla eta atzerapena egon da 2024-2025 ikasturteko zabaltzeko prozesuan, baina arazoa konpontzeko lehen urratsak eman dira.
-  Adostu gabe jarraitzen du Osakidetzarekin Eusfit Mugiment ekimenaren bidez jasotako txostenak pediatren esku jartzeko bidea. Era berean, datuak ikerlarien erabilerako [OPEN DATA](#)-n uzteko asmoa dugu, Eusfit Mugiment sistema sendoagoa izango denean.








7.- Koordinazioa

Mugiment elkarlaneko proiektua den heinean, erakunde desberdinekin harremana izatea ezinbestekoa da.

-  Hauek dira burututako jarduketa aipagarrienak:
 - Tokian-tokiko sareetan 134 bilera egin ditugu.
 - Idazkaritza teknikoaren bilerak: 48, asteroko bilera, presentziala.
 - Lurralde mailako bilerak: bakarra egin dugu Osasun Publikoa eta Aldundietako Kirol Zerbitzuekin. ([bilera agiriak](#))
 - Erkidego osoko koordinazio bilera: Mugiment sustatzaile guztiekin bilera presentziala egin da. ([bilera agiriak](#))
 - Estatuan: Kirol Kontseilu Gorenak (CSD) sorturiko "Grupo de Trabajo de Hábitos Saludables - Promoción de la Actividad Física Beneficiosa para la Salud" [lan-taldean](#) parte hartzen dugu.
-  Hezkuntza Sailarekin koordinazioa hobetzen hasi gara Eusfit Mugiment garatzeko.
-  Euskadiko Plan Onkologiko Integralaren sorreran parte hartzen ari gara, "Zaintzaren jarraipena" izeneko lehentasunezko lan-taldean.
-  Adinekoen Arreta Planaren jarduera fisikoari buruzko esku-hartzearen berrikusketan dihardugu Osakidetzarekin.
-  Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiekin elkarlana hobetu behar dugu.

8.- Komunikazioa

Komunikazioa garrantzitsua da Mugiment egitasmoan, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko tresna ere badelako.

-  X sare soziala erabiltzen dugu eta @mugimenteuskadi kontuaren jarraipen maila ez da nahiko genukeena. Jarraitzaileak galdu ditugu. Sare soziala eraldaketa prozesuan dago.
-  [Baliabideen atalean](#) 6 baliabide berri gehitu dira: 3 txosten, 2 liburu eta irudi bat.
-  Webguneko harremanetarako postontziaren bitartez 56 pertsonen zalantzei erantzuna eman diegu (24 ordu pasa baino lehen), iaz baino 13 gehiago.
-  Webgunean orientazio zerbitzuen atala berritzen ari gara azpiatal berriak gehitzeko, EJIE eta Saileko informatika arduradunekin elkarlanean.
-  [Galdeketa](#) egin diegu teknikari, irakasle eta eragile ezberdinei komunikazioari buruz. Komunikazioa estrategiaren inguruan hausnartzen ari gara.



9.- Formazioa

2024an formazio ezberdinak egin dira Mugiment Idazkaritza Teknikoak antolatuta. Era berean beste prestakuntza jarduera ezberdinetan parte hartu dugu hizlari bezala. Jarduera fisikoari buruz sakontzen jarraitzeko formaziok ere jaso ditugu.



-  Lehen aldiz EAEko orientazio zerbitzuetako teknikarien topaketa antolatu genuen azaroan Durangon.
 - 27 pertsonak parte hartu zuten, gehienak orientatzaileak.
 - 35 udalerrri ezberdin ordezkatzeko zituzten parte-hartzaileak.
-  Kirol Eskolaren elkarlanean, [Min kronikoari aurre egiteko estrategia](#) aktiboak webinarra antolatu zen maiatzean.
-  Menorca Borinak antolatuta, jarduera fisikoa eta osasunari buruzko jardunaldian [parte hartu genuen](#) irailan hizlari bezala Mugiment egitasmoa azaltzen.
-  Geriatria eta gerontologia euskal elkarteak gonbidatuta [Zahartzaroa kongresuan parte hartu genuen](#) Ahultasunaren ñabarduren balorazioa izeneko mahai inguruan.
-  Gipuzkoako Sendagileen Elkargoan [jarduera fisikoari buruzko jardunaldian](#) parte hartu genuen orientazio zerbitzuei buruz hitz egiteko.
-  Eusfit Mugiment ekimenaren baitan [aplikazioa erabiltzeko tutoriala](#) sortu genuen irakasleentzat.
-  Idiazabalgo kirol astearen testuinguruan [Maidar Unda kirolari ohiaren hitzaldian](#) parte hartu genuen jarduera fisikoaren sustapenari buruz.
-  Andaluziako Kirolaren Institutoak antolatuta, *Ejercicio y Cancer* izeneko formazioa jaso genuen.
-  Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatuta, *VI Jornadas Internacionales de Actualización E-FIT: Ejercicio Físico, Salud y Rendimiento Deportivo* izeneko jardunaldian izan ginen.



10.- Dirulaguntzak







Kirol Kontseilu Gorenak onartu egin du «Kirol Sektorea Sustatzea» 26. osagaiaren esparruan autonomia-erkidegoek eta autonomia-estatutua duten hiriek kudeatutako kredituak banatzeko lurralde-banaketa eta irizpideak baimentzeko [Ebazpena](#), 8.050.000,00 €-koa 2024ko aurrekontu-ekitaldian, «Kirol Sektorea Digitalizatzeko Plana» egiteko, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (PRTR) esparruan

Besteak beste, tokiko kirol egitura eta kirol/komunitate espazioak egokitzeko eta hobetzeko jarduerak finantzatuko dira, landa-inguruneetan ariketa eta jarduera fisikoa egiteko programak ezartzen direnean, landa-eremuetan jarduera fisikoa sustatzeko sare koordinatu baten (PAFER) parte izateko.

-  Euskal Autonomia Erkidegoari 170.761,82 € esleitu zaizkio eta diru hau Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntzen agindu baten bidez banatuko da 2025ean, jarduera fisikoaren orientazio zerbitzua duten 20.000 biztanletik beherako udalerriei zuzenduta.
-  Kirol Kontseilu Gorenaren Lehendakaritzaren 2022ko uztailaren 4ko Ebazpenaren betetzeari buruzko [memoria](#) osatu genuen, «Jarduera Fisikoaren Preskripzioaren Digitalizazio Plana» (PRTR) zuritzea helburu zuena.

11.- Ikerketa

Mugiment egitasmotik bultzatutako ikerketak eta idazkaritza teknikoaren parte-hartzea izan duten lanak hauek izan dira:

-  Global Matrix 5.0 txostena osatzeko MU, EHU, Deusto, Euneiz eta EJ elkarlanean hasi dira. Neritzel Albisua (Mondragon Unibertsitatea) taldeburua izango da.
-  Osakidetzak eta EHUko kirolaren zientzietako fakultatea burutzen ari diren Edonola ikerketan laguntzen ari gara.
-  Donostiako Onkologikotik jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuetara erabiltzaileak bideratzeko prozeduraren diseinuan parte hartu dugu. Helburua da proba gisa, 6 udalerritako orientazio zerbitzuetara paziente onkologikoak deribatzen hastea, ondoren, proiektua Gipuzkoa osora zabaltzeko.
-  Ageing On ikerketa taldearekin lankidetzara hasi dugu etorkizunean ikerketa lan ildo berriak abiatzeko.
-  Bizkaiako osasun mentalak bottom up proiektua garatu du JFOZ ezberdinetara deribazioak egin eta zerbitzura atxikimendua neurtzeko.
-  Bilbao-Basurto ESiko Onkologikoaren Bottom Up ikerketan laguntzaile gisa aritu ginen. Helburua zen tratamenduan zeuden pazienteekin bizi ohitura osasuntsuak lantzea baina barne antolaketaren ondorioz ez zen posible izan ariketa fisikoa jorratzea.



12.- Zeharkako egitekoak


Zeharkako egitekoetan berdintasuna, hizkuntza eta ingurumena ditugu jomugan:

12.1.- Berdintasuna

EJko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak berdintasunaren inguruko konpromisoak ezarri ditu kudeatzen ari diren programa guztietan, horien barne Mugiment egitasmoa. Jarraian azaltzen da 2024ko konpromisoak eta betetze maila:



GOBERNU ONARI LAGUNTZEKO PROGRAMAK	EKINTZAK	BETETZEA
BG3. Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea.	Pertsoneri buruzko datuak jasotzen baditugu, ahal bada bereiztu sexuak.	Bete da.
BG5. Prestakuntza ematea erakunde publikoetako langile guztiei, baita politikariei ere.	Idazkaritza teknikoan kidei honen berri eman.	Bete da. ITko kideek formazio ezberdinak egin dituzte berdintasunari buruz.
BG6. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	Pertsoneri buruzko datuak jasotzen baditugu, ahal bada bereiztu sexuak.	Bete da.
BG8. Komunikazioan berdintasuna txertatzea.	Irudiak eta testuak zaindu. Idazkaritza Teknikoari proposatzea Mugiment ordezkaria ahal den guztietan emakumea izatea. #EmakumeAktiboak traola erabiltzea..	Bete da eta Twitteren garrantzi berezia eman zaio #EmakumeAktiboak traolaren bidez. Malen Ruiz de Azua izan da idazkaritza teknikoaren ordezkaria. Zenbait dokumentu zuzendu dira.
BG11. Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea.	Mugiment ekintza planean	Plana sortuko denean.
BG12. Kontratu, diru laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.	Kontratoetan aintzat hartu	Idazkaritza Teknikoaren kontratoan aintzat hartu zen.
BG13. Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea	Mugiment sareetan tokian tokiko berdintasun eragileak gonbidatu..	Sare gehienek ez dute izan berdintasun eragilearen parte hartzea.
BG14. Emakumeek eta gizonen zuzendaritza-organoetan edo organo pluripertsonaletan ordezkaritza orekatua izan dezaten sustatzea.	Emakumeen parte hartzea idazkaritza teknikoan.	Bi emakumeek eta gizon batek osatzen dute Idazkaritza Teknikoa.
BG15. Incorporar la perspectiva de género en los espacios de participación.	Blogarien artean emakume baten parte hartzea lortzea.	Malen Ruiz de Azua eta Dalda Barayazarra aritu dira blogari lanetan.

Orientazio zerbitzuetako erabiltzaileen sexua portzentajetan adierazita:







12.2.- Hizkuntza

-  Euskara da idazkaritza teknikoaren eguneroko hizkuntza eta administrazio gehienekin harremanak euskaraz dira.
-  Oraindik zailtasunak dauzkagu EAeko eragile batzuekin euskaraz egiteko.

12.3.- Ingurumena

-  Desplazamendu motorizatuen kopurua igo da bilera presentzialen igoerarekin.
-  Ez dugu erabiltzen digitalak ez diren euskarri materialik.



13.- Adierazleen taula












Hauek dira 2024ko adierazle aipagarrienak. laz izandako emaitzekin alderatzen dira.

	Proposatutako ekintzak	2024
1	JFOZ lanean : urte bukaeran dauden orientazio zerbitzuak.	47 (+8 / +% 20,5)
2	JFOZetan orduak: orientazio zerbitzuetan eskainitako ordu kopurua astean.	501,5 (+50,5 / +% 11,2) 10,5 batez beste
3	JFOZetako erabiltzaileak: orientazio zerbitzuetan artatutako pertsona kopurua.	3.673 (+1.004 / +% 37,6) 78,1 batez beste
4	JFOZetan hitzorduak: orientazio zerbitzuetan izandako hitzorduak.	10.171 (+3.589 / +% 54,5) 216,4 batez beste
5	Deribazioak Osakidetzatik: orientazio zerbitzuetara Osakidetzatik egindako deribazioak.	3.530 (+1.236 / +% 53,9) 75,1 batez beste
6	Mugiment sareak : urte bukaeran martxan daudenak.	33 (+3 / +% 10)
7	Sareetako bilerak: sareetan idazkaritza teknikoa egondako bileretan (bilera agiri kopurua).	134 (+19 / +% 16,5)
8	Ikastetxeak: Eusfit Mugiment ekimenean parte hartu duten ikastetxeak.	57 (+23 / +% 68)
9	Irakasleak: Eusfit Mugiment ekimenean parte hartu duten irakasleak.	111 (+53 / +% 91)
10	Taldeak: Eusfit Mugiment ekimenean erregistratutako ikasle talde kopurua.	389 (+173 / +% 80)
11	Udalerrriak: Eusfit Mugiment ekimenean parte hartu duten ikastetxeen udalerrriak.	33 (+6 / +% 22)
12	Neurketa kopurua: Eusfit Mugiment baitan egindako neurketa kopurua.	5.939 (+2.334 / +% 65)
13	Web inprimatzeak : webgunearen bidez lortutako inprimatze kopurua.	31.206 (+3.056 / +% 10,9)
14	Sarrerak : blogean argitaratutako sarrera kopurua.	62 (=)
15	Irekierak: buletinaren irekierak.	5.663 (+478 / +% 9,2)
16	Elkareragina: X-en lortutako elkareragin kopurua.	Datua ezin dugu eskuratu
17	Txioak: argitaratutako txio kopurua.	Datua ezin dugu eskuratu
18	Jarraitzaileak: X-en gehitutako jarraitzaile kopurua.	2.900 (-20 / -% 0,69)
19	X inprimatzeak: X-en lortutako inprimatzeak.	Datua ezin dugu eskuratu



14.- Laburpena

Hauek dira 2024an egindakoren mugarri aipagarrienak:

-  **Mugiment sustatzaileak:** 124 sustatzaile gara, iaz baino 4 gehiago baina izaera hau desagurtuko da Mugiment Ekintza Planean eragileek konpromisoak adieraziko dituztelako.
-  **Mugiment Sareak:** Tokiko sare asko egonkortu dira era autonomiaz lan egiten dute.
-  **Orientazio Zerbitzuak:** osasun profesionalak dira orientazio zerbitzuak eskatzen dituztenak udalerritan, hauek hedatzeko bide eraginkorra.
-  **Eusfit Mugiment:** lagina handitzen ari da, sistemaren sendotasunean oraindik gabeziak izan arren.
-  **Koordinazioa:** Jaurlaritzako beste sailekin koordinazioa hobetu egin da.
-  **Mugiment ekintza plana:** planaren 0.1 bertsioa osatu da eta publikoki aurkezteko prest dago.
-  **Komunikazioa:** X gizarte sarearen gainbehera dela eta komunikazio estrategia birbideratu nahi da.
-  **Formazioak:** EAEko jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuetako orientatzaileen I. topaketa antolatu da.
-  **Dirulaguntzak:** Eusko Jaurlaritzak PAFER dirulaguntza jaso du eta 2025ean 20.000 biztanletik beherako udalerrien artean banatuko da.
-  **Ikerketak:** Global Matrix 5.0 txostena osatzeko lanak hasi dira.
-  **Berdintasuna:** ekimen guztietan emakumeen parte-hartzea oso nabarmena da, izan erabiltzaileak, izan kudeatzaile edo sustatzaileak.

2024



Gizartean jarduera fisikoaren garrantzia hazten ari delakoan gaude. Mugiment egitasmoaren handitzea ez doa abiadura berean. Aukera ikusten dugu Mugiment Ekintza Planaren bidez.

2024



Mugiment Ekintza Plana
Eusfit Mugiment hazkundera
Orientatzaileen I. topaketa